



**DONOSTIAKO URREZKO DANBORRAREN TESTA?...!**

- ❖ **Angels Barceló**k zuzentzen zuen "Hora 25" irratsaioak **19.900 euroko** dirulaguntza jaso zuen saioa **Donostiako Tabakalera**n egiteagatik, 2016ean.
- ❖ **Denis Itxaso** kultur-foru-diputatuak idatziz adierazi zuen deus ez zekiela horretaz.
- ❖ **Itxaso eta Gasco** alderdikideak dira
- ❖ **Alkatea** ez goi eta ez doi?

**Bai Ez**

**Bai Ez**

**Bai Ez**

**Bai Ez**

**NAND-TESTA.**

**DONOSTIA BAKARRA MUNDUAN?**

**ATZEOZ AURRERA**

**Nagore Etxeberria** Oiartzun

«Euskara Txillardegiri esker salbatu zen». Kote Camacho bideogilearen (Oiartzun, Gipuzkoa, 1980) hitzak dira. Horra idazleak euskalgintzari egindako ekarpenetako bat. Camachoren ustez, askok ez dakite Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik egindakoaren laurdena ere. Idazlea eta hark egindako lana gizarteratzeko asmoz, Txillardegiren egunkari ezkutua dokumentalaren prestatzen dabil, buru-belarri. **Ostiralean jende aurrean aurkeztu zenuen orain arte egindako lana. Zer-nolako harrera izan zuen?**

Oraindik amaitu gabeko lana da. Larunbatean, baina, Txillardegiren heriotzaren bosgarren urteurrena bete zen, eta martxan den dokumentalaren lagin bat erakustea nahi zuen Txillardegiri Udal Liburutegia herri egitasmoak. Ikusleen artean, unibertsitateko irakasleak, idazleak eta kultura munduko jendea zegoen, eta, beraz, urduri samar jarri nintzen. Baina, egia esan, harrera ona izan zuen, eta horrek poztu eta, aldi berean, lasaitu egiten nau.

**Lana amaitzeko denboratxo bat beharko duzu...**

Bai. Informazio pila bat daukat, eta guztia moldatu beharra dut. Ondoren, ildo bat izango du istorioak, animazioak sartuko dizkiet, eta erritmoa eman. Denboratxo bat beharko dut lana erabat osatzeko. Txillardegiren heriotzaren seigarren urteurrenarako lana amaituta eta aurkezupean itxurazko bat egiteko moduan izatea espero dut; agian, baita lehenago ere.

**Zure burutazioa izan zen Txillardegiri buruzko dokumentala egitea?** Ez, ez zitzaidan niri bururatu. Txillardegiren irudia oso desitxuratua zegoela eta hark egindako lana eta ekarpena ezkutuan geratzen zela ikusirik, Fito Rodriguez idazlea kultura munduko jendea elkarrizketatzen hasi zen. Fitoren helburua, bai-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

## «Txillardegirekiko interesa piztea da lanaren asmoa»

**Kote Camacho • Bideogilea**

Txillardegiri eta hark egindako lana «ezkutuan eta desitxuratua» dagoela uste du Camachok. Pertsonaren alderdiak, ekarpenak eta lanak agerian utzi nahi ditu hari buruz egiten ari den lanarekin.

na, ez zen dokumental astun eta jaso bat egitea, herritar orori interesatuko litzaiokeen lan bat egitea baizik. Dokumentalari gertutasun hori eman nahian, niregana jo zuen, bildutako informazioa osa eta ilustratu nezan. Ordurako, Txillardegiren inguruan informazioa bildutzen hasia nengoen neure kabuz, idazlearen gaineko interesa nuela. Idazlearen gaineko interesa nuela. Proposamena onartuta, Fitok eta biok egin dugu gidoia.

**Zer erakutsi nahi izan duzu dokumentalarekin?**

Txillardegiri ezagutzen ez duen per-

sona baten ikuspegitik kontaktatu dago istorioa. Hala, idazlea nor den jakin nahian ingurukoek galdezka hasten da protagonistak, eta, pixkanaka, idazlearen alderdi ezberdinak, egindako lanak eta ekarpenak ezagutzuz joaten da jendeak kontagintzen dizkion istorioetatik. Azken batean, asmoa da idazlea ezagutzera. Ezagutzeko plazera izan duten guztiak ados daude esatean hark egindako ekarpenak funtsezkoak izan direla euskalgintzan eta herri-gintzan, eta ezagutu beharreko pertsona dela. Hori da, hain zuzen, do-

kumentalean azaleratu nahi duguna. Askok, baina, ez dute ezagutzen hark egindako lana. Zergatik? Haren lana, ekarpena eta irudia zokoratuta eta desitxuratuta dagoelako izan daiteke. Hori ere salatu nahi izan dugu. Ezjakintasunaren haritik tiraka, idazlearekiko interesa piztea da asmoa. Zaila da Txillardegik egin eta ekarri zuen guztia ordu erdiko dokumental batean kontatzeko. Iraupen oso luzeko film bat beharko nuke guztia kontatzeko.

**Nola oroitzen duzu Txillardegiri?**

Egia esan, ez nuen ezagutzen gehiegi haren ibilbidea eta egindako lana. Baina aspaldian hasi nintzen Txillardegiri buruz ikertzen, eta, orain, informazio ugari eta oso interesgarria aurkitzen ari naiz dokumentalarekin. Uste dut oso pertsona erakargarria dela.

**Asko ikasten ari zara, beraz?**

Lanak Txillardegiri sakonago ezagutzeko aukera eman dit. Informazio pila dut batua, eta horrek proiektuan eta dokumentalean aurreratzeko eragozten dit. Informazioaren nahaspilua murgildurik nago.

**Ez da erraza izango halako ibilbide luzea duen pertsona baten bizitza minutu gutxian laburtzea, ezta?**

Ez, batere ez. Bildutako datu, hausnarketa eta pasarte asko eta asko oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Baina, zoritxarrez, informazio asko dokumentaletik kanpora geratuko da, guztia sartzea ezinezkoa delako. Jendearen interesa eta jakin gosea pizteko amu batzuk botako ditut.

**Donostiako udal liburutegiak Txillardegiren izena jartzea eskatzen du Txillardegiri Udal Liburutegia herri egitasmoak. Zer iruditzen zaizu?**

Gure herriari, kulturari eta euskarari egin dijon ekarpena kontuan izanda, harrigarria da nolatan ez dagoen Txillardegiri izeneko kalerik edo plazarik inon. Merezimendu gutxiago duen jende askok du bere izeneko kalea. Haren figura eta lana ezagutu dugun guztiok ez dugu inolako zalantzarik liburutegiak haren izena izan beharko lukeela.

**LOTSABAKO**

**Nola definituko zenuke Txillardegiri hitz bakarrean?** Ezagutza.

**Idazlearen alderdi bat?** Jendearekin hitz egiteko gaitasuna, errespetua eta lana.

**Nori buruzko dokumentala egingo zenuke?** Elkano.